

	<b>GATAZKAK KONPONTZEN IKASTEKO jolasak</b>	
	20'	<b>Transmisio-katea</b>

### 1. AZALPENA

Egoera bat ahozko transmisio-kate baten bidez kontatzeko jolasa. Adibidez, gatazka bat konta daiteke.

### 2. HELBURUAK

Entzuteko eta laburtzeko gaitasuna sustatzea. Komunikazio-arazoei buruzko eztabaida bultzatzea.

### 3. PARTE-HARTZAILEAK

8-9 urtetik gorako taldea, 8 eta 20 kide bitartekoa.

### 6. GARAPENA

Parte-hartzaile batzuk taldetik irten eta beste gela batera joango dira. Taldeko kide batek gatazka baten nondik norakoak kontatuko dizkie beste, ahal dela zehaztasun handiz eta ez oso laburra. Hobe da idatzita izatea.

Kontakizuna entzun dutenetako batek kanpoan daudenetako bati deitu eta gatazka azalduko dio. Ondoren, kontakizuna entzun duenak kanpoko beste bati deitu eta kontatuko dio. Kanpoan dauden guztiek entzun beharko dute. Amaieran, jatorrizko eta azken kontakizunak alderatuko dira.

### 7. EBALUAZIOA

Parte-hartzaileek azalduko dute zer zailtasun izan dituzten kontakizuna beste pertsona bati kontatzeko. Bestalde, eguneroko bizitzako antzeko egoeren berri eman daiteke.